

Baztango euskalkiaz: Elizondoko beste doktrina bat

PELLO SALABURU
EHV/UPV

ABSTRACT

I present here a new testimony of the Basque spoken some 150 years ago in the Valley of Baztan, in Navarre. The text is a previously unpublished catechism found amongst the material gathered by Bonaparte. It is a good example of the speech of Elizondo and of the Baztan dialect, and is to be added to the other material on the same theme that I have already published (*Baztango Euskalkiaz (1)*, University of Deusto, 1980, and *Baztango Euskalkiaz: Elizondoko Doktrina Bat*, ASJU, XX-3, 1986).

1980an argitaratu nuen Deustuko Unibertsitatean *Baztango euskalkiaz* (I) izeneko liburua. Han daude, baztaneraz, bost testu: Jonasen profezia, Mateoren Ebangelioa, Salomonen Kantuen Kantua (testu eder hau baten batek Valle Inclán-en esperpento batekin nahasi zuen Mitxelena zenak jarritako azterketa batean), Ruthen liburua eta Apokalipsia). Testu guzti horiek Echeniquek itzuli zituen eta bere eskuz letra paregabean idatzi, Bonapartek espero zezakeen baino erantzun oparoagoa emanet zurrenez. Aipatu liburuki horrek «1» zeraman azalean baina bat horrek ez du segidarik izan, liburuaren formarekin behintzat.

Nolanahi ere den, eta han agintzen nuena betetzeko asmoz, ASJU-n atera nuen geroago (XX-3, 1986), Elizondoko doktrina bat, hau ere Echeniquek egina (bi lan hauei buruzko xehetasunak liburuaren eta artikuluaren sarreretan ikus daitezkeenez, ez naiz hemen horretaz luzatuko). Eskuartean daukazu orain, Elizondoko beste doktrina bat, hau au ere leku berean aurkitu dudana baina Echenique ez zen beste norbaitek itzulia eta idatzia, letraz eta estiloaz ikus daitekeenez. Nor ote da lan honen egilea? Noiz da idatzia? Zergatik egin zuen lan hau?

Nire ustez, Echeniquek jasoko zukeen, seguraski ere, orain argitaratzen dugun hau bere itzulpenak egiten hasi aurretik. Esan nahi dut honekin, Echeniquerentzat lana berriagoa datekeela, letra, papera eta hurrelakoak kontuan hartzen baditugu. Aipatzeko da, gainera, kontrazalean agertzen dela, besteren batek jarria —letra diferentea delako—,

«Elizondo, 18 oct. 1857». Garai horretan ari zen Echenique bere lana prestatzen, Bonaparteren eskutitzetik susma daitekeenez (ikus *RIEV II eta IV*). Zernahi gisaz, data hori baino lehenagokoa da gaurko doktrina hau.

Behin eta berriz adierazi dut Echeniquek oso ongi biltzen duela Bartzango euskalkia, aldaki fonetiko batzu ere azpimarratzen dituelarik («in», «egin»-en ordez, «Mariain», «Mariaren»-en ordez, e.a.). Jakina, berak landutako testuak luzeagoak eta, iturri aldetik ere, aukera han-diagokoak direnez gero, ez da harritzeko batere Echeniquerengan hizkuntz aberastasun aipagarriagoa aurkitzea. Hizkera aldetik, Doktrina honek ere (neurriak 10 × 14,5 cm. eta 70 orr. denetara) ongi isladatzen du Elizondon egiten dena, ortografia gorabeherak alde batera utzita, jakina: «gueren», «horai», «yautsi» («beheratu»-ren esanahiarekin, noski), «saindu», «nigar», «sortu» («jaio» esan nahi duela), «comecatu», «beztitu», «bizio oken», «norenaganik», «escuñeco escuco beatz...», «bida», «Yaincoa», «hunen», «emanen dabela», «berce», e.a.

Dena dela, hau egin zuenak, euskal gaietan aditua izango zatekeenez (hango apaizen bat agian?), Bartzango euskalkiaz gain izango zukeen beste hizkera eta euskal liburuen berri. Gainera, faltako zitzazkiokeen seguru Bonapartek ematen zituen agindu xeheak hango edo hemen-go euskara jasotzeko orduan. Hau are kontuan hartu beharrekoa da. Hortaz, Bartzango hizkeraren ondoan baditu besteetatik, ohartugabe beharbada, hartutakoak ere: «dituen», «gose denari», «egarri denari», «ene aita», e.a. Hauen artean sartu beharko da oso gutitan agertzen den «Christaba» edo «Christava» hori, hiatoa osatzen duten bi bokalen artean epentesia tartekatuz.

Fonetika xehetasunetan sartzen bagara, ez dakit nik zenbatetaraino fida gaitezkeen doktrina honetaz: «guruce» horren ondo ondoan dago «gaitzazu» (beraz, badirudi «tz» eta «z» bereizten zituela idaztean ere); «erioceco» eta honekin batean «hilceco», gaur egun denak «tz»-rekin ahozkatzen direnak. Palatalizazioan ere «escuñeco» eta «creatzallea» agertzen dira, baina «sinetsi», «sinesten» e.a., gaur egun sabaikariak, nahiz hau fenomeno berriagoa izan daitekeen. Edo, besterik gabe, gaizki jasoa.

Dena dela, nik uste lan fidagarria den, gorago esan bezala. Parean jartzen baldin baditugu «Aita Gurea»-z Echenique-k (E) eta gaurko doktrina honek (G) egiten duten itzulpena, pare parekoak dira (ortografia kontuan izan gabe eta Echeniquek hain ongi ederki adierazten zituen bategiteak albora utzirik). Diferentzia hauek bakarrik aurkitu ditut: «Vetor gurena» (G) eta «betor gure gana» (E), huts baten ondorio seguraski ere; «gure eguneroco ogua» (G) eta «guere eguneroco ogua» (E), baina hurrengo learroan biek diote «geren zorrac» eta «gueren zorrac»; «deztegun» (G) eta «dieztegun» (E) eta azkena eta garrantzikoa bakarra, «aizitik» (G) eta «baizic» (E). Ikusten denez, azkeneko hau kenduz gero, ez dago aldaketarik. Hiztegian bada, izan ere, desber-

dintasun gehiago doktrinaren beste ataletara behatuz gero: esate batetako «becatari» dio Echeniquek eta «becatore», berri, gaurkoak. «Credoa» eta horrelakoetara joanez gero, desberdintasunak ugaritu egingo dira, irakurleak berehala ikusiko duenez.

Halaz guztiz, ez da erraz bien artean aukeratzea. Nik txikitan «Aita gurea» ikasi nuenean Echeniquerentzat bertsioari hurbilago geratzen zitzaiten ikasi nuen hora beste honi baino («baizik» eta ez «aitzitik»). «Credoa», zoritzarrez, Calderónen hizkuntzan erakutsi zidaten eta ezin esan deus ere. Echeniquek «gucizdezaquenaín baitan» dio; honek berri, «podore gucia duenaren baitan». Sintaxia gorabehera, aukera emango balidate, bigarrenarekin geratuko nintzateke puntu honetan, baina «podore» hori ere ez dut, ordea, gogoko. Har bezalako, baina, irakurleak, gaurko doktrina hau aurrekoaren osagarri.

Titulua bere horretan aurkitu dut: Bonaparteren materialak karpetaen sailkatu zituen norbaitek eta doktrina hau 82. karpeta dago izenburu honekin: «Catecismo en bascuence, dialecto de Elizondo».

CATECISMO EN BASCUENCE, DIALECTO DE ELIZONDO

GURUCE Sainduaren señaleagatic gure + etsaietaric, libragaitza zu + gure Yauna eta Yangoicoa. Aitaren eta Semearen eta Espiritu Sainduaren icenean. Amen.

Aitagurea Ceruetan Zaudena santificabedi zure icena Vetorgurena zure Erreinua, eguinbedi zure Vorondatea Ceruan bezala lurrean ere. Eman diezaguzu egun gure eguneroco ogua eta barcadiezaguzu guri geren zorrac guc zorgaitutzenei Barcacen deztegun bezala eta ezcaizuzula uzi tentacioan erorceratik aizitic libragaizazu gaicetic Amen.

Ave Maria graciabetea Yauna da zurequin bedeicatuazuzara andre gucien artean eta bedeicatuada Zure Sabeleco fruitua Jesus.

Santa Maria Yangoicoaren Ama zuc otoiz eguizu gu becatoren gatic horai eta gure erioceko orduan Amen.

Credo. Sinestendut Yainco Aita podore gucia duenaren Ceruaren eta Lurraren Creatzallea baitan. Eta Jesucristo haren Seme bacar gure Yauna baitan, Cein concebitu baicen Espiritu Sainduaren obraz eta graciaz, Sortucen Virgina Maria ganic, Padecituzuen Ponciopilatosen manoaren azpian, guruceficatuzuten, hil eta ehorcizuten, Yautsicen infernuetara, irugarren egunean piztucen hilen hartetic. Igancen Ceruetara yarriric dago Yainco Aita Podore gucia duenaren escuñeco aldean. Andic etorrico da hilen eta vicien yuzcacera, Sinesten dut espíritu Saindu baitan Eliza ama Saindu Catolicoan, Sainduaren Comunionean becatuen barcamenduen araguiaren Piztean, Seculaco Vicicean. Amen.

Salvea. Agur Erreguina Misericordiaren ama. Vizitza eztitasuna gure esperanza, Agur. Zure gana gaude hoiuz Evaren hume desterratuoc,

Zure gana gaude aspera penez aiez eta nigarrez nigarrezco Valle hontan. Hea bada gureararteko itzuletzatzu gure gana zure begui misericordiazco horiec, eta desterro hunen ondoan eracus diezaguzu Jesus zure sabeleco fruitu bedeicatua. O bioz vera, Urricalmendusua, O Maria beti Virgina eztia, otoiz eguiyu gure gatic Yangoicoaren Ama saindua digno izangaitecin Jesu-Cristoren promesen ardiesteco. Amen.

...

Articulo Fedezcoac dira amalau: Lenbicico zazpiac dira Yaincoari Yainco bezala utquitzenaizconac eta berce Zazpiac Jesucristo gure Yaunari guizon bezala dagozcanac Yaincoari Yainco vezala uquicenzaizconac dira hauc.

Lenbicicoa. Sinestea Yainco bacarbat Podore gucia duenabaitan.

Bigarrena. Sinestea dela Aita.

Irugarrena, Sinestea dela Semea.

Laugarrena, Sinestea dela Esptu. Saindua.

Bosgarrena, Sinestea dela Creazallea.

Seigarrena, Sinestea dela Salvazallea.

Zazpigarrena, sinestea dela Glorificazallea.

Yaincoari guizon bezala dagozconac dira hoc.

Lenbizicoa Sinestea Jesu Cristo gure Yauna guizon den bezanbatean izan zela concebitua Espiritu Sainduaren obraz eta graciaz.

Bigarrena Sinestea sortucela Virgina Mariaganic gueldicenzelaric Virgina erdi vaño len erdicean eta erdi ezquieroz.

Irugarrena sinestea errecibitucela eriotzea eta Pasione bortiza gu becatoren Salvatceagatic.

Laugarrena Sinestea yautsizela infernuetara eta aterazituela aren etorcearen beguirazeuden Aita Sainduen arimac.

Bosgarrena Sinestea Piztuzela irugarren egunean ilen artetic.

Seigarrena Sinestea iganzela ceruetara eta iarriric dagola Yainco Aita podore gucia duenaren escuñeco aldean.

Zazpigarrena Sinestea, etorricodela hilen eta Vizien iuzcatcera erranai da honei emanendabela seculaco Gloria, Ceren haren Manamendu sainduac guardatudituzten, eta gaistoeylek Seculaco pena, ceren ezdituzten vegiratu haren manamendu sainduac.

...

Yaincoaren Legueco Manamenduac dira amar. Lenbicicoa iruac dira Yaincoaren hohoratzeko, eta berce Zazpiac lagun proximoaren proverchuco.

Lenbizicoa Yaincoa maitacea gauza gucien gafetic.

Bigarrena vanoan yuramenturic ez eguitea.

Irugarrena, Igandeac eta berce bestac guardacea.

Laugarrena, buratsoen hohoratea.

Bosgarrena, ez hilcea.

Seigarrena, araguizco becaturic ez eguitea.

Zazpigarrena ez evastea.

Zorzarren, falso testimonioric ez alchatza eta ez guezurric erratea.

Baderezigarrena lagun proximoaren emazteric ez deseatza.

Amar Manamenduoc encerratcendira bietan, Yaincoa cerbitzazean eta maitazean gauza guzien gañetic, eta lagun proximoa gueren buruac bezala.

Eliza ama Sanduaren Manamenduac dira bortz

Lenbicicoa Igandeac eta berce bestetan Meza osoa enzutea.

Bigarrena urtean bein bedere confetsazea, eta lehenago hilzeco Peligro-
ric baldin badugu edo comecatu bearbadugu.

Irugarrena garyzumacoetan comeceaza,

Laugarrena Eliza Ama Sainduac manatzenduenean barutcea.

Bosgarrena Amarrenac eta Primitziac pagatza.

Elizaco Sacramentuac dira zazpi, lenbizico bortzac dira necesario-
qui, edo vorondatez errecibitu bearrac, ceinac mezprezatcen dituen gizo-
nac ezin Salba baititeque. Berce biac dira vorondatezcoac.

Lenbicicoa Bataioa

Bigarrena Confirmacionea

Irugarrena Penitencia

Laugarrena Gorputz Saindua, edo Comecadura

Bosgarrena Oliadura

Seigarrena ordena

Zazpigarrena Matrimonioa edo ezconza

Misericordiazco obrac dira amalau: Lenbizico zazpiac, Espiritua-
lac, eta verce Zazpiac Corporalac. Espiritualac hauc.

Lenbicicoa esdaquienari eracustea.

Bigarrena Bearrean dagonari conselluona ematea.

Irugarrena Uts eguitenduenari corregitcea.

Laugarrena Injurien barcatcea.

Bosgarrena tristen consolazea.

Seigarrena lagun projimoaren falta pacienciarequin sofritcea.

Zazpigarrena Vicien gatic eta hilen gatic Yangoicoari otoiz eguitea.

Corporalac dira hauc.

Lenbizicoa, Erien, eta garcelan daudenen bisitacea.

Bigarrena, gose denari iatera ematea.

Irugarrena egarri denari edatera ematea.

Laugarrena gautiboen libratcea.

Bosgarrena bilucien beztizea.

Seigarrena pelegrinoen hostatacea.

Zazpigarrena hilen enterracea.

Becatu Capitalac dira Zazpi.
 Lenbizicoa Soberbia
 Bigarrena Avaricia
 Irugarrena lujuria
 Laugarrena Aserredura.
 Bosgarrena Gula edo Gormandiza
 Seigarrena enbidia
 Zazpigarrena Alferqueria

...

Zazpi Vicio hoquen contra badira zazpi Virtute. Soberbiaren contra humildadea. Avariciaren contra Liberaltasuna. Lujuriaren contra Castidarea. Aserreduraren contra Paciencia. Gula edo Gormandizaren contra abstinencia. Embidiaren contra Caridarea. Alferqueriaren contra Erne edo irazarri izatea.

...

Arimaren etsaiac ceñetaric hies egun bearbaitugu dira hauc. Mundua, Demonioa eta Araguia.

Gorpuzeco Sentidoac dira bortz.
 Lenbizicoa beguiz icustea. Bigarrena Bearriz aditcea. Irugarrena haoz gustacea. Laugarrena sudurrez usain eguitea. Borzgarrena Escuz uquitcea.

...

Arimaren Potenciac dira Iru
 Memoria, Adimentua, eta Vorondatea
 Ni becatorea confesatzen natzaio Yainco Podore guciaduenari, eta Maria beti Virgina doatsoari, eta San Miguel Arcangelu doatsoari, San Juan Bautistari, eta zuriene Aita espirituala eguintudan becatu mortal Venial guziez pensamentuz, hitzez eta obraz, damudut urriqui andia: Yauna nere falta, nereada falta andia Yauna Zuc otoi iduazu nere becatuen gañean Misericordia eta Piedadea Am.

...

Jesu Cristo nere Yauna Yainco, eta guizon eguiazcoa, nere Creazallea, eta Redentorea, damudut Viotz gúcitic zu ofendituaz, Ceren Zaren Zu Zarena eta ceren maitezaitudan gauza gucien gañetic, arcendut Vorondate firmebat, ez gueiago becaturic eguiteco, eta becatu guciac osoqui confesatceco, eta Zu ofendizeco ocasione guzietaric apartazeco, eta ofrezipicendarozquizutene bizi, obrac, eta trabajuar nere becatugucien satisfaccionetan esperanzadut zure hon izate, eta misericordia infinitua barcatuko daztazula nere becatuac zure odol preciosoen pasione, eta eriocearen merecimenduen Virtutez. Amen.

...

Doctrinaren Declaracionea Galdetzen eta Lardesten dela

- G. Guiristinoa zara?
- I. Bai Yaincoaren graciaz.

- G. Guiristinoaren izen hori norenganic izanduzu?
- I. Jesu Cristo gure Yaunarenganic.
- G. Cer erranaidu Guiristinoac?
- I. Jesu Cristoren gizona.
- G. Cer adicenduzu Jesu Cristoren guizonaz?
- I. Jesu Cristoren Fedea duena cein Profesatu baitzuen bataioan, eta haren Cerbitzura obligatua dagona.
- G. Ceinda guiristinoaren Señalea?
- I. Guruce Saindua.
- G. Cergatic?
- I. Cergatic baita Jesu Cristo Gurutzeficatuaren figura ceinetan erosi baiquintuen.
- G. Cenbat maneraz usatcenda Guiristinoaren señalortaz?
- I. Bi maneraz.
- G. Ceindira?
- I. Ceñatzea eta Santiguacea.
- G. Cerda ceñacea?
- I. Escuñeco escuco beatz andiaz iru gurucen eguitea, lenbizicoa copetan, bigarrena haoan, irugarrena bularretan, minzacengarelaric gure Yainco Yaunareq[ui]n.
- I. Eracus nola?
- G. Guruce Sainduaren.
- G. Cergatic ceñacen zara copetan?
- I. Yaincoac libragaizan pensamentu gaisto guciataric.
- G. Cergatic ahoan?
- I. Yaincoac libragaitzan hitz gaistoetaric
- G. Cergatic bularretan?
- I. Yaincoac libragaitzan obra eta deseyu gaistoetaric.
- G. Cerda Santiguacea?
- I. Escuñeco escuco bi beatcequin guruce baten eguitea copetatic bularretaraño, eta ezquerreco soñetic escunecoraño icendacendugulic Trinitate Saindua.
- G. Eracus nola?
- I. Aitaren eta Semearen.
- G. Noiz usatu bearduzu Señale ortaz
- I. Obra cebait asteracoan, bearcunde, tentacione edo peligroetan aurquizeracoan principalqui hoacetic ieiquiceracoan, echetic ateraceracoan, Elizan saceracoan, iateracoan eta eziteracoan.
- G. Cerengatic harenberce haldiz?
- I. Cerengatic dembora eta lecu gucietan gure etsaiac tentacen eta persegüien baicaituzte.
- G. Cer etsai dira horiec?
- I. Demonioa, Mundua eta Araguaia.
- G. Bada Guruceac badu etsai horien contra Virtuteric?
- I. Bai Yauna.

- G. Nondic du Guruceac Virtute hori?
- I. Jesu Cristo bere eriotcearequin hartan garaitu izatetic.
- G. Gurucea adoracenduzunean nola erratenduzu?
- I. Adoracen zaitugu Jesu Christo eta bedeicácen, ceren zure Gurutce Sainduaz erremediatu baitzinuen Mundua.

Doctrina Christianaren Dibisionea

Icusi dugu nola zaren christaba. Christabaren icen eta señaleaz, erran diezadazu horay gueago.

- G. Cenbat gauza iaquitera dago obligatua christava adimentura hellendenean?
- I. Lau gauza.
- G. Cein dira?
- I. Lehenbizicoa iaquitea cer bearden sinetsi: Bigarrena iaquitea cer bearden escatu: Irugarrena iaquitea cer bearden obratu: Laugarrena iaquitea cerbearden errecibitu.
- G. Nola iaquinendu cer bearduen sinesi?
- I. Daquizquielaric Credo edo Articulo Fedecoac.
- G. Nola iaquinendu cer bearduen escatu?
- I. Daquizquielaric Aita gurea eta Elizaco berce gañeraco oracioneac.
- G. Nola iaquinendu cer bearduen obratu?
- I. Daquizquielaric Yaincoaren legueco Manamenduac, Elizaco borzac eta obra Misericordiazcoac.
- G. Nola iaquinendu cerbearduen errecibitu?
- I. Daquizquielaric Elizaco Zazpi Sacramentu Sainduac.

Doctrina Christianaren Lehenbizico Partea ceinetan declaracen baita Credoa edo Articulo Fedezcoac

- G. Nor (sic) erranzuen Credoa?
- I. Apostoluec.
- G. Certaco?
- I. Gu Fede Sainduan informatceco.
- G. Eta Zuc certaco erratenduzu?
- I. Guc Guiristino hoc dugun Confesaceco.
- G. Cerda Fedea?
- I. Icusi ez dugunaren sinestea.
- G. Icusicinuen sortcen Jesu Cristo?
- I. Ez Yauna.
- G. Icusizinuen hilcen edo Ceruetara igaten?
- I. Ez Yauna.
- G. Sinestenduzu?
- I. Bai Yauna.

- G. Cergatic Sinestenduzu?
- I. Cergatic Yainco gure Yauna (sic) ala errebelatu baitu eta Eliza ama Sainduac ala eracustenbaitacu.
- G. Cer gauza dira Zuc Guiristino bezala dauzcatzun eta Sinestendituzunac?
- I. Eliza ama Saindu erromacoa dauzcanac eta sinestendituenac.
- G. Cer gauza dira zuc eta harc dauzcazun eta sinestendituzunac?
- I. Articulo Fedezcoac principalqui Credoan dauden bezala.
- G. Cer gauza dira Articulo Fedezcoac.
- I. Dira Fedearen Misterio principalenac.
- G. Certaco dira Articulo Fedezcoac?
- I. Yainco gure Yaunaz, eta Jesu Cristo gure Redentoreaz ezagunza berreis baten emateco.
- G. Norda Yainco gure Yauna?
- I. Da gauzabat erran, eta pensa aldaitequen baño excelente eta miragarriago Yaunbat infinituqui hona poderosoa, yaquinduria iustua gauza gucien hastea eta acabanza.
- G. Norda Trinitate Saindua?
- I. Dá Yaincoa bera Aita eta Semea eta Espiritu Saindua, iru Presuna distintoac eta eguiatzco Yainco bacarbat.
- G. Aita Yangoicoada?
- I. Bay Yauna.
- G. Semea Yangoicoada?
- I. Bai Yauna.
- G. Espiritu Saindua Yaincoada?
- I. Bay Yauna.
- G. Badira Iru Yangoico.
- I. Ez Yauna eguiatzco Yainco bacarbat baicic.
- G. Aita Semeada?
- I. Ez Yauna.
- G. Espiritu Saindua Aita edo Semeada?
- I. Ez Yauna.
- G. Cergatic?
- I. Cergatic Presuna distintoac baitira eguiatzco Yainco bacarbat izanagatic.
- G. Nola da Yaincoa guziz Poderosoa?
- I. Cergatic bere Podore soilaz eguiten baitu naiduen guzia.
- G. Nola Creatzallea?
- I. Cergatic ez deusetaric eguinbaizituen gauzac guciac.
- G. Nola da salvatzallea?
- I. Ceren ematen baitu gracia eta barcacen becatuac.
- G. Nola da Glorificatzallea?
- I. Ceren ematen baitio gloria haren gracian izatenduenari.

- G. Badu Yaincoac guc bezala gorpuceco figuraric?
- I. Yaincoaden bezanbatean ez cergicat baita espiritu purua bañan bai guizon den bezanbatean.
- G. Iru Presuna dibinoetaric cein eguincen guizon?
- I. Bigarrena cein baita Semea.
- G. Aita eguincen guizon?
- I. Ez Yauna.
- G. Espiritu Saindua eguincen guizon?
- I. Ez Yauna.
- G. Bada Cein?
- I. Semea soilqui cein guizon eguina deitcen baita Jesu Cristo.
- G. Eta non eguincen guizon?
- I. Ama Virginaren Sabel Sacratuan.
- G. Noren obraz?
- I. Espiritu Sainduaren obraz eta graciaz.
- G. Nola izancen obra hura?
- I. Espiritu Sainduac artuzuen ama virginaren entrañetaric odol choratabat, odol artaz formatucuen gorputzbat ez deusetalic creatuzuen arimabat arima eta Corpuz hura instante berean artúcituen Semea beregana gueldicencelaric lehen Yaincocena Yainco eta guizon eguina cein deicen baita J.C.
- G. Guiza hortan beraz norda Jesu Cristo?
- I. Da Yaincoaren semea cein guizon eguinbaitzen gure erremediatceagatic eta vicitceo exemplua emateagatic.
- G. Cenbat naturaleza dira Jesu Cristo gure Yauna baitan?
- I. Bida Yauna.
- G. Cein dira?
- I. Dibinoa eta humanoa.
- G. Cenbat adimentu?
- I. Bida Yauna.
- G. Cein dira?
- I. Dibinoa eta humanoa.
- G. Cenbat Vorondate?
- I. Bida Yauna.
- G. Cein dire?
- I. Dibinoa eta humanoa.
- G. Cenbat Presuna?
- I. Bat Yauna.
- G. Hau nolacoada?
- I. Dibinoa Yauna.
- G. Cenbat memoria?
- I. Bat Yauna.
- G. Hau nolacoada?
- I. Humanoa Yauna.

- G. Cer erranaidu Jesus itz hunec?
- I. Salbazallea.
- G. Certaric Salbatu quintuen?
- I. Gure becatuetaric, eta Demonioaren cautiberiotic.
- G. Cer erranaidu Cristo hitz hunec?
- I. Ganzutua.
- G. Certaz izancen Ganzutua?
- I. Espiritu Sainduaren graciaz eta doainez.
- G. Cristo gure Yauna nola izancen concebitua eta Sortucen Virgina Mariaganic.
- I. Obracenzuelaric Yangoicoac sobrenaturalqui.
- G. Haren ama vici izancen guero beti Virgina?
- I. Bay Yauna beti hil artea.
- G. Cergatic hil nai izanzuen gurucean?
- I. Gubecatutic eta eriotcetic libraceagatic.
- G. Cer adicenduzu infernuaz ceintara iausi baitcen Christo gure Yauna hil eta hondoan.
- I. Ez Condenatuen lecua iustuac ceudecin linboa.
- G. Nola iautsicen?
- I. Arima dibinitatearequin berarequin iuntatua.
- G. Eta haren gorputza nola guelditucen?
- I. Dibinitatearequin berarequin iuntatua.
- G. Nola piztucen irugarren egunean?
- I. Yuntacencelaric berriz arima gloriosa gorpuzarequin beinere ez hilcecotan.
- G. Nola igancen Ceruetara?
- I. Bere Virtute propiaz.
- G. Cer erranaidu Yainco Aita Podore guciaduenaren escuñeco aldean iarriz egoteaz?
- I. Yaincoden bezanbatean Aitac adina gloria izatea eta guizonden bezanbatean niorc baño gueiago.
- G. Noiz etorricoda hilen eta Vicien iuzcacera?
- I. Munduaren Finean edo azquen iuici[o]co egunean.
- G. Eta orduan hilec piztubeardute?
- I. Bai Yauna lehen izanzituzten arima eta gorpuz berequin.
- G. Cer sinestenduzu erratenduzunian Sinestendut Espiritu Saindua baitan?
- I. Trinitateco Irugarren Presuna deicendela Espiritu Saindua eta hain dela Yainco nola Aita Semea.
- G. Cer sinestenduzu erratenduzunian Sinestendut Eliza ama Saindu Catolicoan?
- I. Ezdela mundu gucion Eliza bacarbat baicic.
- G. Norda Eliza?
- I. Da guristino fiel gucion batasuna Unionea eta iunta, ceinaren burzagbia baita Erromaco Aita Sdua.

- G. Eta norda Erromaco Aita Saindua?
- I. Da Jesu Christoren lurreco Vicarioa ceinaren obedicera obligatuac baicaude gucioc.
- G. Cer sinestenduzu erratenduzunean Sinestendut Sainduen Comunio-nean?
- I. Guiristino fiel guciec dutela parte elcarren obra eta hontasun espi-ritualetan gorpuzbaten mienbroac diren bezala cein baita Eliza Yaincoaren gracian daudelaric.
- G. Cer sinestenduzu erratenduzunean sinestendut becatuen barcamen-duen?
- I. Elizan badirela gure becatuen barcaceco erremedioac.
- G. Cer Sinestenduzu erratenduzunean sinestendut araguiaren piztean?
- I. Azquen iuicioco egunean piztuko garela gucioc lehen izanguintuen arima eta gorpuzberequin Yaincoaren Tribunalera aguerceco.
- G. Cer sinestenduzu erratenduzunean sinestendut betiereco Vicicean?
- I. Vicice hunen hondoan esperacendugula berce bicicebat honac Ce-ruan, Gaistoac Infernuan seculacotz iraunenduena.
- G. Credoaz eta Articulo Fedezcoac landara Sinestenduzu berce gau-zaric?
- I. Bai Yauna escritura sagradan dagon gicia eta Yaincoac bere Eli-zari errevetuziotzan guiac.
- G. Cer gauza dira horiec?
- I. Ori ezdiezadazula galde neri ceren ignorante naicen: baitu Eliza ama Sainduac Doctoreac hiardesten daquitenac.

Dotrina Cristianaren bigarren partea, ceynetan explicacenbaita cer bearden escatu, baitaere Eliza Ama Sainduaren oracioneac

Icusi dugu yadanic badaquizula cer sinesi, ceinetan explicacen bai-ta beardezun: goacin horai bigarrenera cein baita cer escatu bearden, errandiezadazu: Norc erranzuen Aita gurea?

- I. Jesu Cristoc.
- G. Certaco?
- I. Guri otoiz eguiten eracusteco.
- G. Cerda otoiz eguitea?
- I. Yaincoari biotz alchatea eta faborea escatcea.
- G. Aita gurea erratenduzunean norequin minzoza?
- I. Gure Yainco Yaunarequin.
- G. Nondago gure Yainco gure Yauna?
- I. Lecu eta gauza gucietan, especialqui Ceruan, eta aldareco Sacra-mentu Sainduan.
- G. Nondago Jesu Cristo gure Yauna?
- I. Yaincoden bezanbatean Lecu eta gauza gucietan especialqui ceruan eta aldareco Sacramendu Sainduan Guizon den bezanbatean bi le-cutan Ceruan eta Aldareco Sacramendu Sainduan.

- G. Cerdago Hostian?
- I. Sacerdoteac Consa. hizac erranbaño lehen ogui puscabat, Sacerdoteac Consagracioneco hitzac erran ezqueroz J. Christoren gorpuz preciosoa.
- G. Hilic edo Viciric dago han?
- I. Viciric Yauna.
- G. Eta badago gorpuz preciosoartan odolic.
- I. Bay Yauna.
- G. Cergatic?
- I. Cergatic ezbaitagoque gorpuz viciric odolic gabe.
- G. Hostian handian edo ttipian dago gueiago?
- I. Gucietan bardin Yauna.
- G. Hostia particendenean particenda J. Christoren gorpuzua?
- I. Ez Yauna.
- G. Cerdago Calicean?
- I. Sacerdoteac consagracioneco hitzac erran bañolen ardo chortabat, eta Ur tanta bat Sacerdoteac consagracioneco hitzac erranezgueroz Jesu Christoren odol preciosoa.
- G. Hilic edo Viciric dago han?
- I. Biciric Yauna.
- G. Eta badago odol precioso hartan gorpucic?
- I. Bay Yauna.
- G. Cergatic?
- I. Cergatic ezbaitagoque Viciric gorpuciq gabe.
- G. Eta Sacerdoteac consagracionezco hitzac erranezgueroz gueldicenda hostia hartan oguiric edo calizahartan ardoric?
- I. Ez Yauna.
- C. Cer eguitendirabada ogua eta hardo hura?
- I. Oguia biurcenda Jesu Cristoren gorputcean eta ardoa odolean.
- G. Cerdira bada han icustenditugunec?
- I. Oguiaren eta ardoaren accidenteac.
- G. Ceinda oracionetan den andiena?
- I. Aita Gurea Yauna.
- G. Cergatic?
- I. Cergatic baita Jesu Cristoc bere ahoz errana Apostoluec escaturic.
- G. Cergatic gueiago?
- I. Cergatic baitu Zazpi petizione Caridade hosoan fundatuac.
- G. Ceindira?
- I. Lehenbicicoa Santificabedi zure icena.
- G. Cer escatenduzu Petizione hortan?
- I. Yaincoaren icen Saindua izandadiela ezagutua eta hohoratua mundu gucian.
- G. Ceinda Bigarrena?
- I. Betor gugana zure erreinua.

- G. Cer escacenduzu Peticione hortan?
- I. Erreynadezala Yaincoac gure Arimetan, emen lurrean graciaz eta guero digula vere Gloria.
- G. Ceinda Irugarrena?
- I. Eguinbedi Zure Vorondatea Ceruan Bezala lurreanere.
- G. Cer escacenduzu Peticione hortan?
- I. Eguindezagula Yaincoaren Vorondatea Lurrean gaudenoc, Ceruan Bienabenturatu ec edo doasuec eguitenduten bezala.
- G. Ceinda Laugarrena?
- I. Emandiezaguzu egun gure egunoroco ogua.
- G. Cer escatenduzu Peticione hortan?
- I. Emandiezagula Yaincoac conbenizaicun mantenua gorpuceco, eta graciaren eta Sacramentuen Sustentu espirituala Arimaco.
- G. Ceinda Borzgarrena?
- I. Barcadiezaguzu guri geren Zohorrac guc zorgatuzteney barcacen deraztegun bezala.
- G. Ceinda Seigarrena? Cer escacenduzu peticione ortan?
- I. Yaincoac barcadiezagula guri, geren becatuac guc guri bidegabean edo gaizquiac eguitendazcuteney barcacenderaztegun bezala.
- G. Ceinda Seigarrena?
- I. Ezgaitatzula utzi tentacioan erorcera.
- G. Cer escacenduzu Peticione hortan?
- I. Yaincoac ezgaitzala utci tentacioan erorcera ez eta ere consenti- cera pensamentu gaistoetan eta tentacionetan ceinequin Demonicac procuracenbaitu guc becatuan errorazteria.
- G. Ceinda Zazpigarrena?
- I. Aicitic libragaitzala Arimaco eta gorpuceco gaitz eta Peligro gais- toetaric.
- G. Certaco erratenduzu lehenic Aita gürea Zeruetan Zaudena?
- I. Yaincoari viotza alchaceco eta humiltasun eta Confianzarequin es- caceco.
- G. Cer erranaidu Amen azquen hitzac?
- I. Ala izandadiela, eta hala guertadadiela.
- G. Cer oracione erratendiozu principalqui Ama Virginari?
- I. Ave Maria eta Salvea.
- G. Nor erranzuen Ave Maria?
- I. Aingueru San Gabrielec Ama Virginaren Salutacera etorricenean.
- G. Nor erranzuen Agur Erreguina?
- I. Eliza Ama Sainduac dauca erreccibitua.
- G. Certaco?
- I. Ama Virginari fabore escatceco.
- G. Ave Maria edo Agur erreguina erratenduzunean norequin minzoza?
- I. Andre Virgina Mariarequin.

- G. Norda gure Andre Virgina Maria?
- I. Da andrebatez virtutez betea Yaincoaren amadena eta Ceruan dagona.
- G. Eta Aldarean dagonori norda?
- I. Da Ceruan dagonaren imagina edo iduricanzabat.
- G. Certaco dago han?
- I. Haren medioz Ceruan dagonaz oroit gaitecinzat eta cerenden haren imagina reverenciadezagunzat.
- M. Veraz orobat eguinbeardabezu berce Sainduen imaginei here.
- G. Otoiz eguinbeardabezu halaber Aingueruei eta berce Sainduey?
- I. Bay Yauna gure arartecoei bezala.
- G. Cer gauza dira Ainguiruac?
- I. Dira Ceruan Yaincoaz gozacen dauden espiritu bienabenturatu-bazuec.
- G. Certaco Creatucituen Yaincoac?
- I. Beti haren laudatceco eta bedeicaceco.
- G. Certaco gueiago?
- I. Haren Ministroac bezala Elizaren gobernaceco eta guizonen guardaceco.
- G. Beraz baduzu zuc Ainguerua guardacenzaituena?
- I. Bai badut eta baituzte guizon guciak here berenac.
- G. Veraz iduquidiozozu debocione andibat eta encomendazaquizco egunero.

**Doctrina Christianaren Irugarren Partea Ceinetan declaracen
baita cer bearden obratu**

Icusi dugu yadanic cer bearden sinetsi eta escatu: Icus dezagun horay nola daquizun cer bearden obratu.

- G. Erandiezadazu Ceinda Yaincoaren legueco lehenbiziko Manamendua.
- I. Yaincoa maitacea gauca gucion gañetic.
- G. Nor maitazendu Yaincoa?
- I. Haren manamenduac guardacen eta veguiracendituenac.
- G. Cerdia haren maitacia gauza gucion ganetic?
- I. Naiago izatea gauza gucion galcea haren ofendiceabaño.
- G. Certara gueiago obligatcengaitu Manamendu hunec?
- I. Haren beraren adoracera arimaco eta gorpuceco reverencia handi batequin. Sinesten eta esperatzen dugularic haren baitan Fede Vicipbatequin.
- G. Norc becatu eguitendu Manamendu hunen contra?
- I. Idoloac eta Yainco falsoac adoracen tuenac eta hetan siñesten duenac.

- G. Nor gueiago?
- I. Haztietan sorguinquerietan sinesten duenac, hechizeriez eta supersticiones valiacendenac.
- G. Ceinda Bigarrena?
- I. Yuramenturic banoqui ez eguitea.
- G. Norc adicenduzu eguiten duela yuramentu banoqui?
- I. Eguiaric yusticiaric premiaric gabe yuramentu eguitenduenac.
- G. Eta becatuda creaturaz yuramentu banoqui eguitea?
- I. Bay Yauna cergatic Creatzalleari eguiten baizaio yuramentu hetan.
- G. Cer erremediola yuramentu banoqui ez eguitea?
- I. Bay edo ez erratea usatcea Christoc eracustendacun bezala.
- G. Ceinda Irugarrena?
- I. Igandeac eta berce besteac guardacea veguiracea edo Santificacea.
- G. Norc guardacen eta veguiracenditu Igandeac eta berce bestac?
- I. Meza osoa enzutenduenac eta premiaric gabe etan trabajacen ezdenac.
- G. Ceinda laugarrena?
- I. Buratsoen hohorazea.
- G. Norc hohoratcenditu buratsoac?
- I. Hec obeditcen socorricen eta errespetacendituenac.
- G. Norc gueiago comprendicendira burasoen icenean?
- I. Andienac edo gueiago direnac adinean dignidadean eta gobernuan.
- G. Ceinda Borzgarrena?
- I. Ez ilcea.
- G. Cer manacenda manamendu huntas?
- I. Niori gazquiric ez eguitea ez hitcez ez obraz ez eta deseiz here.
- G. Ceinda seigarrena?
- I. Araguizco becaturic ez eguitea.
- G. Cer manatcenda manamendu huntas?
- I. Garbi eta Casto izangaitezila pensamentu hitz eta obretan.
- G. Ceinda Zazpigarrena?
- I. Ez ebastea.
- G. Cer manacenda Manamendu huntas?
- I. Ez equencea ez iduquicea ez eta here deseatcea berceren gauza iabearren borondatearen contra.
- G. Ceinda zorzigarrena?
- I. Falso testimonioric ez halchacea ez guezurric erratea.
- G. Cer manacenda huntas?
- I. Harinqui ez iuzcacea, ez erratea ez eta here aditcea lagun proximoaren defectuac.
- G. Norc austendu Manamendu hau?
- I. Arrazoin contra iuzcacen infamacen secretuac aguercen eta guezurra erratenduenac.
- G. Cer debecacenda bederetcigarren eta amargarren Manamenduan?
- I. Araguiaren eta hontasunen guticia gaistoac.

- G. Certacodira Elizaren Manamenduac?
 I. Yaincoarenac obequi guardaceco eta beguiratzeco.

**Doctrina Christianaren laugarren partea
 Cein declaracen baitira
 Sacramentu Errecibitubearrac**

Icusi dugu nola daquizun cer bearden sinetsi, escatu eta obratu: Icusdezagun horay nola daquizun, errecibitu beardena, Cein baita Azquena.

- G. Cer gauza dira Sacramentuac?
 I. Dira campoco señale vazuec Jesu Cristoc ordenatuac, hequen medioz guri vere gracia eta Virtuteac emateco.
 G. Cerdia Gracia?
 I. Da izatea Dibinobat ceinec eguinten baitu guizona Yaincoaren hume eta Ceruco heredero.
 G. Cer Virtute emateute Sacramentuoc graciaren graciarequin batean?
 I. Iru principalqui Teologalac eta dibinoac.
 G. Ceindira?
 I. Fedea, Esperanza, eta Caridadea.
 G. Cerdia Fedea?
 I. Icusi ezdugunaren sinestea cergatic Yainco gure Yaunac ala errebelatu baitu eta Eliza Ama Sainduac ala eracustenbaitacu.
 G. Cerdia esperanza?
 I. Gloriaren esperacea Yaincoaren graciaz eta gure obra honen medioz.
 G. Cerdia Caridadea?
 I. Yaincoa maitacea gauza gucien gañetic eta lagun proximoa gueren burua bezala hequi eguitendiogularic hec guri egun diezaguten naiguinuquen bezala.
 G. Certaco da Bataioa?
 I. Becatu Originalaren edo Batayacendenaren baitan arquicenden berce edocein becatuen barcatceco.
 G. Cerdia Becatu originala?
 I. Da becatu hura ceinequin sortcen baicara gucioc lehenbicico Vurasoenganic heredatua.
 G. Certacoda Confirmacionea?
 I. Bataioan recibituguinuen Fedean Gufirmaceco eta Vortizteco.
 G. Certacoda Penitencia Sacramentua?
 I. Bataio errecibicean edo Batayatuz gueroztic eguinditugun becatuen barcaceco.
 G. Cer becatu dira horiec?
 I. Mortalac eta Venialac.
 G. Cerdia Becatu Mortala?
 I. Da eguitea, erratea, pensacea deseatcea cerbait gauza grabe Yaincoaren legue Sainduaren contra.

- G. Cergatic deitcenda Mortala?
- I. Cergatic hilcenbaitu eguitenduen Arima.
- G. Cer medioz barcacenda becatu mortala?
- I. Confesione hon baten medioz confesabadaiteque, eta contricione eguiazco baten medioz confesaceco deseiuarequin.
- G. Cenbat gauza beardira confesione hon baten eguiteco?
- I. Borz Yauna.
- G. Ceindira?
- I. Lehenbicicoa bere conciencia ongui exsaminacea, Bigarrena bere becatuez damu eta dolore izatea, irugarrena propositu firme baten arcea, Laugarren ahozco confesioa, Borzgarrena obrazco Satisfaccioa.
- G. Cerda examina?
- I. Da bere bat banac oroitcea edo bat bederac bere aldetic eguinala eguitea bere becatuez oroitceco.
- G. Cerda Dolorea?
- I. Da Vioceco damu eta urriqui izatea Yaincoa ofendituaz.
- G. Cenbat maneraz da Dolorea?
- I. Bi maneraz.
- G. Ceindira?
- I. Contricioa eta Atricioa.
- G. Cerda Contricioa?
- I. Da Vioceco damu eta Urriqui izatea Yaincoa ofendituaz ceren den hain ona propositu firmebatequin confesaceco eta seculan becaturic ez eguiteco.
- G. Cerda Atricioa?
- I. Da Viotceco damu eta Urriqui izatea Yaincoa ofendituaz ceren guren becatuac direla medio galdu baitugu Cerua eta meressi infernua propositu firme batequin confesaceco eta seculan becaturic ez eguiteco.
- G. Ceinda hautaric bietaric andiago eta perfectuago?
- I. Contricioa Yauna.
- G. Cergatic?
- I. Cergatic contricioac berac barcacenbaitu becatuac confesatugabe eta Atricioa (sic) ezin barca baitezaque confesione onbaten medioz baicic.
- G. Cergatic gueiago?
- I. Cergatic Contricioa sortcen baita Amodiotic eta Atricionea beldur-tasunetic.
- G. Cerda Propositura?
- I. Da deliberacione firmebaten artcea seculan becaturic ez eguiteco.
- G. Cerda Ahozco confesioa?
- I. Aita Confesoreari bere becatuen claroqui erratea ciertoac cierto guisa, dudazcoac dudazco guisa, gucien absolucionea, edo barcamendua ardiesteco esperanzarequin.

- G. Cerdar obrazco Satisfaccionea?
- I. Da Aita confesoreac ematenduen penitencia cumplicea.
- G. Eta cumplitubeardu Penitencia?
- I. Confesatu hondoan Bai acinetic asqui da deseyua.
- G. Penitencia ez cumplicea Cer becatuda?
- I. Nolacoden Penitencia.
- G. Penitencia handia gravea balimada?
- I. Becatu Mortala.
- G. Penitencia ttipia levea balimada?
- I. Becatu Veniala.
- G. Eta necesarioda bat becatuan erorcenden gucian bereala confesatcea haren barcaceco?
- I. Onguiliteque baña ezta necesario.
- G. Cer eguinbeardubada?
- I. Artubeardu bere becatuez damu eta dolore eguiazcobat emendatceco eta Eliza Ama Sainduac manacenduenean confesaceco proposituarequin.
- G. Cerdar Becatu Veniala?
- I. Da Becatu Mortaleraco disposicionebat.
- G. Cergatic deicenda beniala?
- I. Cergatic errazqui erorcenbaita guizona hartan eta errazqui baracten baitzaio.
- G. Cenbat gauez barcacenzaio.
- I. Bederatziez.
- G. Ceindira?
- I. Lenbicicoa Meza enzuteaz, Bigarrena Comecaceaz, Irugarrena Confesione Generalaz, Laugarrena obispoaren bendicioaz, Borzgarrena Urbedeicatua harceaz. Seigarrena ogui bedeicatua harceaz. Zazpigarrina, Aita gurea errateaz. Zorcigarrena, Predicua enzuteaz. Bederacigarrena bularretan golpe emateaz escacen diogularic Yaincoari barcamendua.
- G. Certacoda Comecadura edo gorpuz Saindua?
- I. Dignoqui erreccibitzen dugularic Jesu Christo gure Yauna arimaren sustentaceeco eta graciaren berratceco.
- G. Cer erreccibicenduzu Comunione Sainduan?
- I. Jesu Cristo gure Yauna eguiazco Yainco eta eguiazco guizona cein eguiazqui eta errealki baitago Ceruan eta aldareco Sacramendu Sainduan.
- G. Certacoda Oliadura?
- I. Iru gaucetako.
- G. Ceindira?
- I. Lehenbicicoa bere becatuen mancha eta arresto gucien borratceco. Bigarrena demonioaren tentacionen contra arimari indar eta gracia emateco. Irugarrena gorpuzari conbeni bazaio hosasuna emateco.

- G. Certaco da Ordena?
- I. Elizaco Ministro dignoen consagratceco eta ordenaceco nola baitira Sacerdoteac, Diaconoac, eta Subdiaconoac.
- G. Certacoda Matrimonioa edo Ezconza?
- I. Ezconceco eta ezconduey gracia emateco eta elcarren hartearen banean vicitceco eta humeric izaten baute ceruracoz azteco.

Doctrina becatu Capitalen gañean

- G. Cergatic deicendira becatu capitalac edo Vuruzaguiac zazpi comuzzi mortalac deitcendirenac?
- I. Deicendira Capitalac edo Buruzaguiac cergatic baitira hetaric sortcendiren berce Vicioen iturburuac, edo erroac bezala, eta mortalac deitcea ezdacone haren ongui cerengatic anitz aldiz ezbaitira Venialac baicic.
- G. Noizdira Mortalac?
- I. Yaincoaren eta lagun proximoaren caridadearen contra direnean.
- G. Noiz dira caridadearen contra?
- I. Noiz ere hequengatic austen baita Yaincoaren, eta Elizaren manamendu cembait gauza gravean.
- G. Cerda Soberbia?
- I. Da berceac baño gueiago izateco guticia edo deseiu desordenatubat.
- G. Cerda Avaricia?
- I. Da hontasunen guticia edo deseiu desordenatubat.
- G. Cerda luxuria?
- I. Da Araguiaren Placer lohi eta gusto ciquinen deseiu desordenatubat.
- G. Cerda Aserredura, edo hira?
- I. Da asperceco edo mendecaceco deseiu desordenatubat.
- G. Cerda Gula edo Gormandiza?
- I. Da iateco eta edateco deseiu desordenatubat.
- G. Cerda enbidia?
- I. Berceren honaz pena eta asecabe izatea.
- G. Cerda Naguitasuna?
- I. Da obra honetako gogo hila izatea.
Arimaren exai ceinataric hies eguinbearbaitugu dira Iru. Mundua; Demonioa eta Araguia.
- G. Nola hies eguitenzaio Munduari?
- I. Hies eguitenzaio bere ponpa eta Vanidaden desprecioarequin.
- G. Nola hies eguitenda Demonioarenganic?
- I. Oracionearequin eta humildadearequin.
- G. Nola hies eguitenda araguiarenganic?
- I. Hies eguitenda eta garaicenda araguia cilicioz, disciplinez, eta baluez: hauda esaiari (sic) handiena ceren araguia ecin hequen baitezquegu geren ganic, banan, bai Mundua eta Demonioa.

Arimaren Potenciac dira Iru

- Memoria, Adimentua eta Vorondatea.
- G. Certaco emanzacun Yaincoac Memoria?
- I. Yaincoaz eta haren onguieguinez oroiceco.
- G. Certaco emanzacun Yaincoac Adimentua?
- I. Gure Yauna ezaguceco eta haren baitan pens[ace]co.
- G. Certaco emanzacun Yaincoac Vorondatea?
- I. Haren maitaceco ceren gucic honaden eta proximoa haren gatic.

Zorzi Doatasunac

- 1.^a Doatsuac dira espirituz pobre direnac ceren hequena baita Ceruco herreinua.
 - 2.^a Doatsuac dira mansoac ceren hec poseituco baitute lurra.
 - 3.^a Doatsuac dira nigar eguitendutenac ceren hec izanen baitira consolatuac.
 - 4.^a Doatsuac dira iusticia gose eta egarri direnac ceren hec izanen baitira asesiatuac.
 - 5.^a Doatsuac dira misericordiosoac ceren hec ardiestoico baitute misericordia.
 - 6.^a Doatsuac dira Viocez garbidirenac ceren hec ucusico baitute Yaincoa.
 - 7.^a Doatsuac dira baquetiarrac ceren hec deituac izan baitira Yaincoaren Semeac.
 - 8.^a Doatsuac dira persecucionetan padecidutenac, ceren equena izanen baita Ceruco Erreynua.
- G. Cer errandituguhoray?
- I. Zorci Doatasunac.
- G. Cer gauza dira Doatasun hauc?
- I. Espiritu Sainduaren Virtute eta doainic oberenac.
- G. Nor dire Espirituz Pobre direnac?
- I. Hohoreric eta averastasunic moderatuqui here, nay ezdutenac.
- G. Nordira mansoac?
- I. Aserreduroric, eta Movimenduraric ere ezdutenac.

Actos de Esperanza

Esperatcendut Yainco Aitan. Esperacendut Yainco Semean. Esperacendut Yainco Espiritu Sainduan. Esperacendut Trinitate Sainduan. Esperacendut Jesu Cristo gure Yaunan.

Actos de Caridad

Maitacendut Yainco Aita. Maitacendut Yainco Semea. Maitacen dut Yainco espiritu Saindua. Maitacendut Jesu Cristo nere Yauna. Maitacendut Nere guiristino laguna nere burua bezala eta barcacen diot ofenditubanau eta nic ofenditubaut barcamendua escacendiot.